

# AUSTRALIA

Deskribapena: Australiako imajinak agertzen dira, hiriak, jendea, kanguruak eta tribu desberdinak.

Kike (off ahotsa): Batzuentzat, Australia irla handi bat da; beste batzuentzat, ordea, kontinente txiki bat. Hori bai, denak ados daude bertako sinboloa izendatzeko orduan. Kangurua. Kondairak dioenez, lehen esploratzaileek animalia bitxi horren izena galdetu zutenean, indigenek “Kan Ghu Ru”! erantzun zuten, baina “Kan Ghu Ru”-k Guugu Yimithirr hizkuntzan “ez zaitut ulertzen” esan nahi omen du. Australian guugu yimithirr hizkuntzaz gain, beste berrehun eta berrogeita hamar hizkuntza inguru hitz egiten ziren, bai eta, kontaezinezko dialekto mordo bat ere. Gaur egun, ordea, gutxi batzuek diraute bizirik, eta, tamalez hau ez da kondaira bat, benetan gertatutako sarraskia baizik.